Egindako ebazpen-proposamenen berri eman zitzaielarik, beren defentsarako alegazioak biltzen zituzten idazkiak aurkeztu zituzten interesatuek.

Ikusirik aipatutako ebazpen proposamenak, interesatuek egindako alegazioak eta dosierrean bildutako frogak, Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariak, Alkateak 2004/02/09ko Dekretuaren bitartez bere gain utzitako aginpideaz baliaturik, eta martxoaren 2ko 339/90 LEDaren 7. eta 68. artikuluetan eta otsailaren 25eko 320/94 EDaren 15.ean xedatutakoaren ildotik, interesatuek zigor gisa ordaindutako kopurua ez itzultzea erabaki du.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 59-4 eta 61. artikuluetan (1992/11/27ko BOE) xedatutakoaren ildotik, iragarki honen bidez gauzatzen da jakinarazpena; izan ere, aipatutako dosier zigortzaileetan egokitutako ebazpenen berri eman nahi izan zaielarik interesatuei, ezinezkoa gertatu baita.

Interesatuek jakin dezaten ematen da argitara, banan-banako jakinarazpenaren balio izango duelarik. Bidenabar, hanako hau jakinarazten zaie:

1.- Dosierra aztertzea

Udaleko Hazienda, Ondare eta Aurrekontu Saileko Trafiko Zigorren Atalean aztertu ahal izango dituzte dosier zigortzaileak interesatuek, zuzenean nahiz azaroaren 26ko 30/92 Legearen 32. artikuluan eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten ordezkarien bitartez.

2.- Errekurtsoak

Jakitera ematen diren ebazpenekin bukatutzat jotzen da administrazio-bidea. Hortaz, ondorengo errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira horien kontra:

1.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoetarako Epaitegian, ediktu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuko den BI HILABETEko epean.

2.- Aukeran, berraztertze errekurtsoa, Alkate jaunaren aurrean, ediktu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuko den HILABETEko epean, eta errekurtso horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria/Gasteizko Administrazioarekiko auzitarako Epaitegiaren aurrean; ezeste ebazpena berariazkoa baldin bada, hura jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuko den BI HILABETEKO epean, eta ezeste ebazpena ustezkoa baldin bada, berriz, SEI HILABETEKO epean.

3.- Egokitzat jotzen den eta bidezko den beste edozein errekurtso.

Vitoria-Gasteizen, 2007(e)ko maiatzaren 21.– Dirubilketa Zerbitzuko burua, ANA GUTIÉRREZ SOLANA.

Notificadas las propuestas de resolución, los interesados presentaron escrito con las alegaciones pertinentes para su defensa.

Vistas las propuestas de resolución citadas, las alegaciones formuladas por los interesados y las pruebas incorporadas al expediente, el Concejal Delegado del Área de Hacienda, por delegación del Ilmo. Sr. Alcalde (Decreto de delegación de fecha 09/02/2004), de conformidad con lo establecido en los artículos 7 y 68 del RDL 339/90, de 2 de marzo (B.O.E. de 14/3/90) resolvió no devolver a los interesados la cantidad abonada en concepto de sanción.

De conformidad con lo establecido en los artículos 59-4 y 61 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (B.O.E. 27/11/92) se realiza la notificación mediante este Anuncio al haberse intentado sin efecto la notificación de las resoluciones recaídas en los expedientes sancionadores relacionados.

Lo que se hace público para conocimiento de los interesados a quienes debe servir de notificación individual, con las siguientes advertencias:

1.- Vista del expediente

Los interesados, directamente o por medio de representante que reúna los requisitos exigidos en el artículo 32 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, podrán examinar los expedientes sancionadores en la Unidad de Sanciones de Tráfico del Departamento de Hacienda, Patrimonio y Presupuesto.

2.- Recursos

Las resoluciones que se notifican ponen fin a la vía administrativa por lo que, frente a las mismas, podrán interponerse los siguientes recursos:

1.- Directamente, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de DOS MESES a contar desde el día siguiente al de la publicación de este Anuncio.

2.- Con carácter potestativo, recurso de reposición ante el Ilmo. Sr. Alcalde, en el plazo de UN MES a contar desde el día siguiente al de la publicación de este Anuncio, contra la resolución expresa o presunta de este recurso, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de DOS MESES a contar desde el día siguiente al de la notificación de la resolución de desestimación del recurso o en el plazo de SEIS MESES a contar desde el día siguiente a aquél en que se produzca la desestimación presunta del recurso, respectivamente.

3.- Cualquier otro recurso que se estime pertinente y resulte procedente.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de mayo de 2007.– La Jefa del Servicio de Recaudación, ANA GUTIÉRREZ SOLANA.

| MATRIKULA MATRÍCULA | TITULARRA TITULAR | HAUTSITAKO ARAUA PRECEPTO INFRINGIDO | EGUNA FECHA | ESPEDIENTEA EXPEDIENTE | BULETINA BOLETÍN | ZENBATEKOA IMPORTE |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4379-DVG | ARAMBALZA ZALBIDEA, TERESA | ART.10.10.1 ORDENANZA 18/ | 21/09/2006 | E030218S1 /2006022526 | 0/005301624 | 21,04 |
| 8590-BNC | BARRIGON PEREZ, GERARDO | ART.94.2.E RD 1428/2003 2 | 24/09/2006 | E030218S1 /2006023692 | 0/002329235 | 31,56 |
| 1020-CVD | JIMENEZ GABARRI, ELVIRA | ART.154 RD 1428/2003 21/1 | 13/11/2006 | E030218S1 /2006027218 | 0/599999831 | 31,56 |
| VI-7501- X | MOTILVA MARTI, MARIA ANGELES | ART.9.11.7 ORDENANZA 18/0 | 19/10/2006 | E030207S1 /2006030602 | 1/002332137 | 31,56 |

•••

## VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA

**3834**

**Zabalganeko 2. Sektorearen Plan Partzialaren 3. aldakuntza behin betiko onestea.**

Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorreko Zabalganeko 2. sektoreko plan partzialaren 3. aldakuntza puntuala zela eta, hauxe erabaki zuen udalbatzarrak 2007ko apirilaren 27ko osoko bilkuran:

1. Behin betiko onestea Zabalganeko 2. sektorearen plan partzialaren hirugarren aldakuntza, zeina Ensanche 21 Zabalgunea udal hirigintza elkarteak sustatu baitu eta elkarteko teknikariek idatzi.

## VITORIA-GASTEIZ

URBANISMO

**3834**

**Aprobación definitiva de la 3ª modificación del plan parcial del sector 2 de Zabalgana.**

En relación con la 3ª modificación puntual del plan parcial del sector 2 de Zabalgana del vigente plan general de ordenación urbana, con fecha 27 de Abril de 2007, el Ayuntamiento Pleno ha adoptado el siguiente acuerdo:

1. Aprobar definitivamente la tercera modificación del plan parcial del sector 2 de Zabalgana, promovida por sociedad urbanística municipal Ensanche 21 Zabalgunea y redactada por los técnicos de la sociedad.

2. Plangintzaren kopia Arabako Foru Aldundira igortzea gorde dezan eta Zabalganeko 2. sektoreko plan partzialaren 3. aldakuntza puntualari buruzko erabaki hau ALHAOn zein lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 89. artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz.

3. Erabaki horren kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko maiatzaren 3an.– Alkate lehendakaria, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

## VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA

3837

**Indarreko Gasteizko HAPOko 11. sektorea –Ibaialde– urbanizatzeko proiektuaren 2. fasea.**

2007ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko HAPOko 11. sektorea –Ibaialde– urbanizatzeko proiektuaren 2. faseari dagokionez:

1.- Hasierako onespena ematea Gasteizko HAPOko Salburuko 11. sektorea urbanizatzeko proiektuaren bigarren faseari, zein kontrata bidez gauzatzeko diru-kopurua (BEZa barne) 8.049.224 eurokoa baita; horiek gauzatzea eta ordaintzea inguruko konpentsazio batzarrari dagokio.

2.- Ebazpen hau eragindakoei jakinaraztea eta aldizkari ofizialean argitaratzea, eta dosierra jendaurrean jarrita edukitzea, hogei egunez, Gasteizko Ensanche 21 Zabalgunea udal hirigintza elkartearen egoitzan –Eduardo Dato kalea, 14 - bigarren solairua–, horrek eragiten diela uste dutenek oro aztertzerik izan dezaten, baita egokitzat jotzen dituzten ohar eta alegazioak aurkezterik ere.

3.- Ebazpen horren kontra ez dago errekurtsorik aurkezterik, tramite-egintza baita.

Hala ematen da jakitera, interesdunak jakinaren gainean egon daitezen. Halaber jakinarazten da ebazpen horren kontra ez dagoela errekurtsorik aurkezterik, izapide-egintza izaki, eta alegazioak eta oharrak aurkezteko epea iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko dela.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko maiatzaren 7an.– Alkate-lehendakaria, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

## VITORIA-GASTEIZ

HEZKUNTZA

3755

**2007/2008 ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzeko laguntzak emateko deialdia.**

Hezkuntzaren edo kulturaren alorrean Gasteizko udalerriko ikasleen guraso elkarteek bideratzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerek eta jarduera osagarriek, direla unibertsitateaz besteko ikastetxeetako ikasleei zuzendutako jarduerak, direla hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrei zuzendutakoak, sortutako gastuei aurre egiten laguntzea xede duen deialdiaren oinarriak prestatu ditu Udaleko Hezkuntza Sailak.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2007ko maiatzaren 11n egindako ohiko bilkuran onetsi zuen 2006/2008 ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzeko laguntza emateko deialdia.

Aginduzko txostenak ikusi dira eta 2004ko urtarrilaren 7an eskumenak eskuordetzeko emandako dekretua kontuan izan da.

2. Remitir una copia del plan, para su depósito, a la Diputación Foral de Álava y publicar el presente acuerdo de la tercera modificación del plan parcial del sector 2 de Zabalgana en el BOTHA y en un diario de mayor difusión, a tenor de la dispuesto en el artículo 89 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

3. El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa y contra él puede interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del Pais Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación o publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de mayo de 2007.– Alcalde Presidente, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

## VITORIA-GASTEIZ

URBANISMO

3837

**Proyecto de urbanización, fase 2, del sector 11 “Ibaialde” del vigente PGOU en Vitoria-Gasteiz.**

En relación con el proyecto de urbanización, fase 2, del sector 11 “Ibaialde” del PGOU de Vitoria-Gasteiz, la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el 4 de mayo de 2007, ha adoptado el siguiente acuerdo:

1º.- Aprobar inicialmente el proyecto de urbanización de la segunda fase del sector 11 de Salburua, del PGOU de Vitoria-Gasteiz., cuyo importe de ejecución por contrata (IVA incluido) asciende a la cantidad de 8.049.224,17euros, cuya ejecución y abono corresponde a la Junta de Compensación afectada.

2º.- Notificar esta resolución a los afectados, publicar este acuerdo en el boletín oficial y en un diario de los de mayor circulación y exponer al público el expediente, en las dependencias de la Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria-Gasteizko Udal Hirigintza Elkartea Ensanche 21 Zabalgunea S.A., sitas en la segunda planta de la C/Dato, nº 14, durante el plazo de veinte días, pudiendo ser examinado por cuantos se consideren afectados, quienes podrán presentar las observaciones y alegaciones que consideren pertinentes.

3º.- Contra este acuerdo no caben recursos, por tratarse de un acto de trámite.

Lo que se hace público para conocimiento de los interesados, haciéndose saber que contra esta resolución no tienen cabida recursos, por tratarse de un acto de trámite y que el plazo de alegaciones y observaciones se iniciará al día siguiente de la publicación de este anuncio.

Vitoria-Gasteiz, a 7 de mayo de 2007.– El Alcalde Presidente, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

## VITORIA-GASTEIZ

EDUCACIÓN

3755

**Convocatoria de ayudas para la realización de actividades extraescolares y complementarias, curso 2007/2008.**

Por el Departamento Municipal de Educación, se han elaborado las bases para la concesión de ayudas a la financiación de los gastos derivados de las actividades extraescolares y/o complementarias de carácter educativo o cultural, desarrolladas por las Asociaciones de Madres y Padres (AMPAs), para alumnos de los centros docentes escolares no universitarios, u otras Asociaciones de Padres que atiendan a niños-as con necesidades educativas especiales, del municipio de Vitoria-Gasteiz.

En Sesión Ordinaria celebrada por la Junta de Gobierno Local con fecha 11 de mayo de 2007, se procede a la aprobación de la convocatoria para la concesión de ayudas destinadas a la realización de actividades extraescolares y complementarias para el curso 2007/2008.

Vistos los informes preceptivos y de conformidad al Decreto de Delegación de Competencias de 7 de enero de 2004.